

"Bihotza golkoan", Martin Ugalde (Erein)

[Egile ezezaguna]

Bilbao, 31. zk., 1990-07/08.

Liburu hau osatzen duten bederatzi errelatoek harrituta utzi naute, Idazle orok etikaren bat duela, nork berea, beti ere egia baldin bada, Martin Ugalderi dagokionez agerkoa da indar etikoak agintzen diola beste ezerk baino indartsuago.

Gaztelaratua izan ala ez izen, gure arteko kuestio garrantzitsuen bilakarazi nahi digutenean, hara hemen gaztelaraz literatura ona egitetik euskaraz literatura ona egiteko asmoz etorri den gizona. Hori dok gaztetasuna, txo!

Liturgilearen bildurrik handiena topikoena izan behar bada, ederto uxatu du bildurra Ugaldek. Prosa hau Ugalderena da. Ugalde antitopikoa da, prosabidean ez eze gaietan ere. Liburu honek marginala zer edo nor den gogoetan hasteko era ematen digu.

Honez gero, euskal letrek behar duten aitite adinekotzat dut Ugalde, zuhurra, ibilia, bizitzak ederto astindua eta laikoa. Ez da gitxi.